

TicketBAiko BALIOGABETZE fitxategiaren balidatzeen eta erroreen zerrenda



Edukia

1- SARRERA	3
2- BERTSIOEN KONTROLA	3
2.1 bertsioa 1.0 (2022/01/01)	3
2.2 bertsioa 2.0 (2022/02/21)	3
2.3 bertsioa 3.0 (2023/11/02)	3
2.4 bertsioa 4.0 (15/12/2025)	3
3- BALIDATZEAK	5
3.1 JASOTZE BALIDATZEAK	5
3.2 TICKETBAI BETEKIZUNEN INGURUKO BESTE BALIDATZE BATZUK	6
4- FITXATEGIAK ETA ERROREAK KUDEATZEA	8
4.1 Erroreak jakinaraztea.....	8
4.2 Fitxategiak kontsultatzea	8
4.3. Erroreak zuzentzea	8

1- SARRERA

TicketBAIko BALIOGABETZE fitxategiak jasotzeko prozesuan, AFAk balidatze batzuk egiten ditu automatikoki. Dokumentu honetan jasotzen dira egiten diren balidatzeak, horietako bakoitzari dagozkion erroreen sailkapena eta errore horiekin lotutako kodeak eta azalpenak.

2- BERTSIOEN KONTROLA

2.1 bertsioa 1.0 (2022/01/01)

- Dokumentua sortu da.

2.2 bertsioa 2.0 (2022/02/21)

- 017 errore kodearen ordezk 018 kodea jarri da.

- 018 errore kodearen ordezk 019 kodea jarri da.

- Balidatzeei buruzko 3. atalean, bereizi egin dira jasotze balidatzeak (ezestea eragiten dute) eta TicketBAI betekizunen inguruko beste balidatze batzuk (baliogabetzearen kontsolidazioaren ostean), zeinak baliteke asinkronoak izatea eta erroreei buruzko oharrak sortzea.

- 4. apartatua, "Fitxategiak eta horien erroreak kudeatzea", erantsi da.

2.3 bertsioa 3.0 (2023/11/02)

- 004, 011, 016 errore kodeak aldatu dira

- Erroreen zuzenketa atala aldatu da

2.4 bertsioa 4.0 (15/12/2025)

- SINADURAREN balidatze hauek aldatu dira:

- 008-198 erantsi da

3- BALIDATZEAK

JASOTZE BALIDATZEAK:

- Zerbitzua eskatzean betetako datuak balidatzeko dira, bai eta etiketen egiturak eskema betetzen duela balidatzeko ere, ordenari, nahitaezkotasunari, formatuari eta luzerari dagokionez, baita balioa aldeztu aurretik ezarritako balio batzuekin bat datorrela balidatzeko ere, hala badagokio.
- Jasotze balidatzeak gainditzen ez badira, fitxategia ez da onartuko.
- Jasotze balidatzeak gaindituz gero, fitxategia jaso egingo da.

TICKETBAI BETEKIZUNEN INGURUKO BESTE BALIDATZE BATZUK:

- Baliogabetzea kontsolidatu ondoren egiten diren beste balidatze batzuk dira, eta baliteke modu asinkronoan egitea.
- TicketBAI betekizun jakin batzuk betetzen direla balidatzen da:
 - o Egiaztatzen da TicketBAI lizentzia software zerrendan erregistratuta dagoela.
 - o Egiaztatzen da jaulkitzailearen IFZ Arabako zergaduna dela.
 - o Igorlearen identitatea egiaztatzen da.
- Modu sinkronoan egiten dira, edo modu asinkronoan, AFaren sisteman jasotzen diren fitxategien karga handia denean.
- Balidatzea modu sinkronoan eginez gero, erantzuneko xml fitxategiaren bidez jakinarazten dira oharrak. Horrez gain, web orrian dagoen “Fakturak kontsultatu” aplikazioan ere kontsulta daitezke.
- Balidatzea modu asinkronoan eginez gero, web orrian dagoen “Fakturak kontsultatu” aplikazioan kontsulta daitezke oharrak.

3.1 JASOTZE BALIDATZEAK

Jasotze balidatzeak gainditzen ez badira, fitxategia EZETSI egingo da.

Kodea	Errorea	Azalpena
001	Igorlearen ziurtagiria ez da zuzena (baliogabetua edo homologatu gabea).	TicketBAI fitxategia bidaltzeko erabilitako ziurtagiria ez da baliozkoa.
002	TicketBAIko alta fitxategiak ez du XSD eskema betetzen.	TicketBAIko alta fitxategiak ez du zehaztutako XSD eskema betetzen.

004	Derrigorrezko datua falta da edo datua okerra da [Datua].	Egiaztatzen da ez direla falta TicketBAI identifikatzailea kalkulatzeko behar diren datuak eta nahitaezkoak diren beste datu batzuk: <ul style="list-style-type: none"> - TicketBAI lizentzia: existitzen dela egiaztatzen da - Jaulkitze data: Data zuzena izan beharko da, eta ezingo da izan gaurko data baino geroagokoa.
018	Baliogabetu nahi den alta fitxategia ez dago sisteman.	Baliogabetu nahi den TicketBAI fitxategia ez dago sisteman.
019	Alta fitxategia baliogabetuta dago lehendik.	Baliogabetu nahi den TicketBAI fitxategia baliogabetuta dago lehendik.
024	Baliogabetu beharreko faktura aurretik ordezkatu edo zuzendu da ordezkatzeko bidez.	Baliogabetu nahi den TicketBAI fitxategia aurretik ordezkatu edo zuzendu da ordezkatzeko bidez.
006	Jasotze zerbitzua ez dago erabilgarri. Errepikatu eragiketa geroago.	Ustekabeko errorea gertatu da. Eragiketa errepikatu egin behar da zerbitzua berrezartzen denean.

3.2 TICKETBAI BETEKIZUNEN INGURUKO BESTE BALIDATZE BATZUK

Ez dakarte ezesterik. Baliteke modu asinkronoan egitea.

Kodea	Oharra	Azalpena
999	Errorea sisteman	Errorea gertatu da sisteman. Jarri harremanetan informaciontecnica@araba.eus zerbitzuarekin.

Igorlearen ziurtagiriaren egiaztapenak:

Kodea	Oharra	Azalpena
998	Oharra igorlearen ziurtagiria balidatzeari buruz: Ziurtagiria iraungitako cachean soilik da baliozkoa.	Arazo teknikoak direla eta, ezin izan da egiaztatu igorlearen ziurtagiriaren baliozkotasuna. Baina badakigu ziurtagiri hori baliozkoa izan dela aurreko bidalketetan.
007	OHARRA: Igorlearen ziurtagiria ez da baliozkoa fakturaren jaulkitzailearentzat.	TicketBAI fitxategia bidaltzeko erabilitako ziurtagiriaren eta fakturaren jaulkitzailearen artean lotura dagoela balidatzen da. Hainbat kasu bereizten dira: <ul style="list-style-type: none"> - Baliogabetuko den fakturak honako hau badu: "Hirugarren batek edo hartzaileak jaulkitako faktura" = N, ziurtagiria igorlearen IFZri edo 2d mailako borondatezko bere ordezkariari dagokiola egiaztatzen da.

		<ul style="list-style-type: none"> - Baliogabetuko den fakturak honako hau badu: “Hirugarren batek edo hartzaileak jaulkitako faktura” = D, ziurtagiria fakturaren hartzaileari dagokiola egiaztatzen da. - Baliogabetuko den fakturak honako hau badu: “Hirugarren batek edo hartzaileak jaulkitako faktura” = T, ez da egiaztatzen igorlearekiko lotura.
012	OHARRA: Igorlearen fakturazio gailua ez dago erregistratuta.	Baliogabetze fitxategia bidaltzeko gailu ziurtagiri bat erabili bada, ziurtagiri hori igorlearentzat erregistratuta dagoela egiaztatzen da. Horretarako, izapide bat dago TicketBAIren web orrian: Gailu ziurtagirien erregistroa.
013	OHARRA: Igorlearen ziurtagiria iraungita dago. Hurrengo bidalketarako berritu behar da.	TicketBAI fitxategia bidaltzeko erabilitako ziurtagiria iraungita dago.

Egiaztapen orokorrak:

Kodea	Eremua	Oharra	Azalpena
008	Signature	OHARRA: Errorea gertatu da sinadura egiaztatzean	<p>Errorea gertatu da sinadura egiaztatzean.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baliteke sinatzailearen ziurtagiria edo sinadura baliozkoa ez izatea. • Bidalitako sinadura politika edo dokumentuaren hasha ez dira zuzenak. 008-198.
014		OHARRA: Sinatzailearen ziurtagiria iraungita dago. Hurrengo bidalketarako berritu behar da.	TicketBAI fitxategia sinatzeko erabilitako ziurtagiria iraungita dago.
011	<TBAIaztarna><Softwarea>	OHARRA: Errorea gertatu da TicketBAI softwarearen alta inskripzioa egiaztatzean.	<p>Fakturazio softwarearen blokearen datuak egiaztatzen dira. Honako hauek detektatzen direnean agertzen da oharra:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erakunde garatzailearen IFZ datuak edo softwarearen izena ez datoz bat.
016		OHARRA: Datua falta da edo datua okerra da [Datua].	<p>Adierazi badira, fitxategiko datu hauek edukia dutela egiaztatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erakunde garatzailea

4- FITXATEGIAK ETA ERROREAK KUDEATZEA

4.1 Erroreak jakinaraztea

TicketBAiko baliogabetze fitxategiak balidatzeetakoren bat gainditzen ez badu, modu sinkronoan emango da errorearen berri, erantzuneko XML fitxategiaren bidez.

Balidatzeren bat modu asinkronoan geroago eginez gero, web orrian dagoen "Fakturak kontsultatu" aplikazioan kontsulta daitezke oharrak.

4.2 Fitxategiak kontsultatzea

TicketBAiko baliogabetze fitxategiak jasotze balidatze guztiak gainditzen dituenean, erreferentziako fitxategiak baliogabetuko dira. Une horretatik aurrera, fitxategiaren egoera "Baliogabetua" izango da.

4.3. Erroreak zuzentzea

Errore motaren araberakoa izango da erroreak zuzentzeko egin beharreko ekintza. Hona hemen:

Ezestea eragiten duten erroreak		
ERRORE MOTA	KODEA	ERROREA ZUZENTZEKO EKINTZA
BIDALTZE ZIURTAGIRIArekin lotuta	001	BIRBIDALI TicketBAiko BALIOGABETZE fitxategia, behin errorea zuzenduta.
JASOTZE ZERBITZUA ez dago erabilgarri	006	
TicketBAiko BALIOGABETZE fitxategiaren EGITURArekin edo GUTXIENeko EDUKIEkin lotua	002 004	Bidali zuzentze fitxategia ZUZENDU-BALIOGABETZEA zerbitzuaren bitartez.
(*) TicketBAI softwarearen ALTA INSKRIPZIOArekin lotua	004	Jarri harremanetan hornitzailearekin eta erregistratu softwarea etorkizuneko bidalketarako.
EZ da aurkitu baliogabetu beharreko fitxategia	018	Bidali zuzentze fitxategia ZUZENDU-BALIOGABETZEA zerbitzuaren bitartez, eta identifikatu behar den bezala baliogabetu nahi diren fitxategiaren eremuak, edo, hala badagokio, zuzendu TicketBAiko alta fitxategia ezestea eragin duten erroreak eta BIRBIDALI TicketBAiko baliogabetze fitxategia.
Baliogabetu beharreko fitxategia jasota dago dagoeneko	019	Ez da ezer egin behar.
Baliogabetu beharreko fitxategia ordezkatu edo zuzendu egin da ordezkatzeko bidez	024	BIRBIDALI TicketBAiko BALIOGABETZE fitxategia eta identifikatu behar den moduan baliogabetu beharreko faktura.

Jasota, baina errore oharrekin		
ERRORE MOTA	KODEA	ERROREA ZUZENTZEKO EKINTZA
Errorea sisteman	999	Jarri harremanetan informaciontecnic@araba.eus zerbitzuarekin.
(*) BIDALTZE ZIURTAGIRIAREN IDENTITATEAREKIN LOTUA	998	Ez da ezer egin behar.
	007 (Igorlearen ziurtagiria ez da baliozkoa jaulkitzailearentzat)	Bidali baliogabetzea ZUZENDU-ALTA zerbitzuaren eta baliozko ziurtagiri baten bitartez.
	012 (Gailuaren ziurtagiria ez dago erregistratuta)	Ez da birbidali behar. Baina gailuaren ziurtagiria erregistratu behar da hurrengo bidalketekin jarraitu aurretik.
	013 (Ziurtagiria iraungita dago)	Ez da birbidali behar. Baina ziurtagiria berritu behar da.
(*) TicketBAI softwarearen ALTA INSKRIPZIOAREKIN LOTUA	011 016	Jarri harremanetan hornitzailearekin eta zuzendu softwareko datuak etorkizuneko bidalketarako
(*) Baliogabetze fitxategia sinatzearekin lotua	008 014	Sinatu behar bezala hurrengo bidalketetan. Sinatzeko erabilitako ziurtagiria iraungita badago, berritu hurrengo bidalketarako.

(*) Zerga betebeharrak egiaztatzeko espediente bat irekitzea ekar dezake.